



Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehikuntzaren modalitatekoa, 2020-KALD-000009-00 zenbakiduna.

Ikusita kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena,  
**ERABAKITZEN DUT:**

**Lehen**a.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

#### KREDITU GEHIGARRIAK

| Kapitulua                          | Izena             | Gehikuntzak       |
|------------------------------------|-------------------|-------------------|
| 1                                  | PERTSONAL GASTUAK | 212.500,67        |
| <b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b> |                   | <b>212.500,67</b> |

#### FINANTZAKETA

| Kapitulua      | Izena             | Zenbatekoa        |
|----------------|-------------------|-------------------|
| 8              | FINANTZA AKTIBOAK | 212.500,67        |
| <b>GUZTIRA</b> |                   | <b>212.500,67</b> |

**Bigarrena**.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

**Hirugarrena**.- 3/2020 Foru Dekretu-Arauaren 2. Artikuluaren arabera, Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak toki-korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Osoko Bilkurak ez baliozkotzeak ez du onartutako dekretu edo ebazpenaren deuseztapen edo etete-ondoriorik izango.

Zarautzen, 2020ko ekainaren 12an  
Alkatea